

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala**

Lehiaketa iragarkia: Bermeoko Erreteren txurrotegi bidez jabari publikoaren aprobetxamendu pribatiboa egiteko emakida administratiboa ematea.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko urtarrilaren 19an hartutako erabakiarekin bat, iragarki honen bidez egiten da Bermeoko Erreteren txurrotegi bat jarriz jabari publikoaren aprobetxamendu pribatiborako administrazio-emakida esleitzeko baldintzak arautzeko deialdia.

1. Erakunde esleitzaila

- a) Erakundea: Bermeoko Udala.
- b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Idazkaritza Saila.
- c) Espediente-zenbakia: 2021/IDA_ERA_0005.

2. Dokumentazioa eta informazioa lortzea

- a) Bulegoa: Idazkaritza Saila.
- b) Helbidea: Irakaskintza, 14-16.
- c) Herria eta posta kodea: Bermeo, 48370.
- d) Telefonoa: 946 179 105.
- e) Webgunea: www.bermeo.eus

3. Lizitazioaren xedea

- a) Mota: Jabari publikoa ematea.
- b) Deskribapena: jabari publikoa ematea, Bermeoko Erreteren herrian txurro-denda bat instalatuz jabari publikoaren aprobetxamendu pribatiborako.
- c) Iraupena: Herri-erabilerarako emakidaren iraupena 15 urtekoa izango da, emakida formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita, eta ezin izango da luzatu.

4. Izapideak eta prozedura

- a) Tramitazioa: Arrunta.
- b) Prozedura: Irekia.
- c) Modua: Enkantea.
- d) Lizitaziorako gutxieneko tasa: 2.300,00 euro/urteko.

5. Bermeak

- a) Behin-behineko bermea: Ez da eskatzen.
- b) Behin betiko bermea: esleipen-prezioaren %5.

6. Eskaintzak aurkeztea

- a) Aurkezteko azken eguna: hilabete, dagokion iragarkia BAO-n argitaratu eta biharramunetik hasita.
- b) Aurkeztu beharreko agiriak: lizitatzailaek bi gutun-azal edo artxibo elektronikotan aurkeztuko dituzte beren proposamenak, Administrazio Klausula Berezien Agiri-ko 11. klausulan adierazitako moduan eta edukiarekin.



- c) Aurkezteko modua:
- Berhaz (Ertzilla kalea, 6-8, 48370-Bermeo).
 - Bermeoko Udalaren egoitza elektronikoa: <https://tramiteakonline.bermeokoudala.eus/egoitza/>
 - Legez aurreikusitako gainerako moduetan, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera.

7. Eskaintzak irekitzea

- a) Erakundea: Mahaia.
- b) Eguna: Bermeoko Udalaren web orrian eta iragarki-taulan adierazitako eguna eta ordua.

Bermeon, 2021eko urtarrilaren 19an.— Alkatea, Aritz Abaroa Cantuariense